

Herri Batasunaren ukapena

Deia, 1983-06-18.

Gure herriaren egoera politikoa larria da.

Espainiako Estatuak dituen erasobide guztietatik Euskalerrria ahultzeko ahalegin maltzurretan ari da. Ez da Estatutua bakarrik; gure herriaren Unibertsitatearen autonomia da, euskararen etorkizuna da, nekez berreskuratu dituen eskubideen ukapen lapur-baldarra da; eta indarkeriaz ezarri nahi dioten zama berria, hau dena da gure herrian gaur jokoan dagoena.

Egoera larri honetan, dei bat: herriaren gehiengoak autatutako gizonak, eta ofizialki, egindakoa.

Ba dira familia osatzen dutenen bilera hertsia eskatzen duten uneak, eta asarreak ahaztuz agertzekoak, urrun bizi diren semeak hurbiltzekoak, anai baten aurka esandako hitzak irenstekoak, ozenki botatakoak isilean pasatzekoak, ozpinak gozatzekoak, gauza guztien gainetik *aitaren etxea defendatzeko* egin behar direnak elkarrekin egitekoak.

Herria osatzen dutenen kemenak *batzekoak*.

Herriaren Batasuna exigitzen duten horietakoak.

Herriak ba daki botoaren bila esandakoetatik estuasunean botatzen den deihadarra bereizten.

Euskalduna denak ba daki aita batek elkar ondo eramaten ez ziren semeei eman zien adibidea: Bildu zituen seiak, eta gazteenari habar bat eskuratuaz esan zion: "Hautsiko ahal duk habartxo hau?" Eta gaztetxoak, "klik" batez bi zati egin zuen. "Orain bildu surtarako dauden artean lodi bereko sei –esan zion berriz–, eta eman anai nagusiarri..., ea hik, Joxe, sortatxoa eskuaz hausteko kemenik baduken". Seme zaharrenak egin zituen ahaleginak, eta alperrik. "Hauxe diotzuet –hitz egin zien aita–, sakabanaturik bizi zareten anaiak banan bana arerioaren eskuetan jostailu zarete, baina elkar egiten baduzute, ez zaituzte inork menderatuko".

Adibide ximpleak esangura handia du.

Herri Batasunak ez du Lehendakari Garaikoetxearen deia entzunaz bereak dituen puntuei uko egin beharrik. Aski du joan eta auziaz dituen asmoak erakustea, legezko denez. Ez du, honetarako, defendatzen dituen printzipioen bizkarrezurrik okertu behar, ez eta bururik makurtu behar ere. Edozein herritan gobernuak hartzen ditu bi muturretan aurkakoak dituen alderdietako buruak, eta deiari erantzuten duenak ez du hurbiltzearekin ezer galtzen.

Bestelako joera, integrismo huts eta ahula da.

Eta honek ez dio Euskalerrriaren instituzio nagusiarri arrotzen begietan kalte besterik egiten.